


# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

117n. Zenbakia

Epaila  
Martia  
1988



**OLATZ'EKO AMA**  
(AZPEITIA'n)

## URKIOLA TA BERE INGURUAK

Iñoz lenago bere zerbait idatziak gara Urkiola ta bere inguruko edertasunak dirala ta. Sarritan egon gara inguru orreikaz lillurituta, mendigoizale batentzat oso zailla dalako menditarte ikusgarriago bat aurkitzea, naita gure lurraldea, Euzkadi guztia, apaiña eta txukuna izan. Asko zoragarriagorik beintzat, ez dago bertatzen dan edozein notiñentzat eta batez be mendi-zale benetakoarentzat.

Orain ogeita amar edo amabi urte, mendi oneik eta Euzkadi'ko mendirik geienak ezagutu ondoren, Naparra eta Aragoi aldeko Auñamendi (Pirineos)'ko goi-mendi-lerroak ikustera zuzendu gintzazan erritar mendigoizale taldetxu bat, mendi orreïn edestiak eta aomenak geien bat bultzatuta.

Benetan mendi orreïn goitasunaz eta edertasunaz ea lillurituta gengozala, esan neutsen neure lagunai: Egia da, mendi oneik ikusgarriak dira, batetik, guk Bizkaia'n daukaguzan mendi ta atxak baiño irutan goitiagoak eta, urte guztian kenduten ez dan edurra eta euroatik urteten daben urakaz sortutzen diran zingarak ta abar, baiña, edertasun orreik kendu ezketiño, ez dira gitxi, ez dauke Urkiola'ko mendiak eta Durango aldeko atxak ez dabenik. Alantxe da izanbe eta.

\* \* \*

Urkiola'k baiña, ba'dau beste edertasunik asko, batez be udaldian, mendi-zalea izan ez-arren edozein gizakiri, notiñeri, atsegingarri izan litzakiozanak: Zugazti zabalak, ur onak, bedarrez ondo jantzitako mendiak, Urkiola-mendi ta Saibigain, eurretan soinketa pizkat egiñez, aiza osasungarriaz uriak aizetu eta ikuspenera argitutze-ko egokiak diranak. Gaiñera, ikuspegi zabalak diran mendi-gaillur orreitatik gozatzen diralako gure lurraldeak dituan ikuskizun bikaiñak.

Aipatu doguzanak ainbat izanik eta atsegingarriak, beste zerbait garrantzizkorik ba dau Urkiola'k euzkotar ziñezkorrentzat eta, batez be euzkaldunontzat: Urkiola-gaiñean doguzan Andoni Deunak. Danok dakigun lez, Andoni bi dira bertako eleizako zaindariak; Padua'ko Andoni eta Andoni abata. Eta, Deun orrei dautsegun maitasunak bertaratu gaitu ainbeste anei, milla edo milloi notin, siñestedun. Aintxiñako abesti zarrak adierazoten dauskue euzkaldunen artean izan dan maitasuna, batez be Padua'ko Andoni deunarentzat:

Urkiola'ra igon da  
zapatak urratu,  
Aite San Antoniok  
barriak egingoitu.

Askok egiten dautso  
Aita San Antonio'ri,  
agun baten joan da  
bestean etorri.

Aita San Antonio  
Urkiola'koa,  
euzkaldun askoren  
Santu debotoa.

Abesti oneik, jakiña! egokitu geinkez, baiña, gure aurrekoai dautsogun begiruneagaitik, eurakandik ikasi genduzan eran idatzi doguz.

\* \* \*

Urkiola'ko Deuntegia, oso utsituten asita aurkitzen zan, jakiña! uzkurtzale edo katolikuen aldetik, pizka bat itzita, ardurabako lez, ikusten ebelako siñistedunak batzen ziran diruak nora joiazen gitxi batzuk baiño bestek ez ebelako ikusten. Bertan beintzat ezer be aurrerapenik ez zalako ikusten.

Zorionez, baiña, orain urte batzuk eleiza ortako txauburutzat egundo be aztuko ez jakun Estonba'tar Imanol (G.B.) eta bere lagunak jarri ebezan eta, bai Deuntegia ta bai bere inguru guztiak barriztu eta apaindu zituen, ea galdurik egoan siñezkera berbiztuaz.

"Santutegia'ri, bear-bearreko eban gaurkotasuna emon eutsen, eleizan eta inguruan."

Benetan, atsegin izaten jakun on Imanol'egaz izketalditxu bat egitea. Urkiola'ra igoten genduan geienetan eta euzkal idazle jator ta gizon jakintsu aregandik asko ikasi eikeelako, almena ebenak.


\* \* \*

Gaur-egun Urkiola'n diran abadeakaz ez dogu ezaupide aundirik, baiña, gure ustez zintzoak dira eta, ezetariko zalantza barik, Estonba jaunaren ikasbidea ondo jarraitzen dabela.

Baiña, arek, Estonba tar Imanol'ek itzi eban utsunea, gaitx izango da betetzen bai Urkiola'n, bai Bizkaia'n eta Euzkadi'n be, bera lako gizonak banakak izaten diralako.

Urkiola, lenago esan dogunez, oso atsegin jaku, baiña, bertaratzen geran guztietan, eta sarritan izaten gara bertan, on Imanol gogoratutzen dogu.

Urkiola! Euzkadi'ko leku atsegingarria. Ortxe izango gara al dogun guztietan.



# GOSEAREN AURKA

elduak ikusten doguzanean errukia artzea, geure laguntza emon bear dogu..

\* \* \*

Laguntza on emoteko bide bat, bide arteza ta egin-korra "Esku Alkartuak" dogu eta laguntza emoteko lekua edozein diru-etxe.

Ez dagigun izan zalantzarik gure amoinak, bear ba' da gosedunen eskuetara ez dirala elduko. "Esku Alkartuak" orretan zintzo jokatzan du eta bere kontuak urte-ro emon.

Orri onetan iruditxu batzutan ikusi geinkez laguntzak non eta zenbat emoten diran.


Edozein gizonek, eta errazoi bereziakaitik kristiñau izena ta izana daroagunok, begiratu bear dogu ardura aundiagaz gaurko munduan arazo aundia dan gosearena. Joan dan illean ospatu da arazo oneri buruz ekiñaldi beroa eta orrek bultzatzen gaitu idaztixu au idaztera.

Lurbira osoaren iparraldean eta Kristo'ren Barri Ona geien zabaldua dagoan lekuan daukaguz laterririk aberatsenak eta egoaldean Barn Ona gitxien zabaldua dagoan lekuak (Ego-Amerika ez dago olakoen artean) eta orreiek dira gose-arazoa bizien daukenak.

\* \* \*

Gure eskuan ba'lego, orretarako neke aundi bat artu-bearra izan arren, bein betiko mundu guztian dan gosea kentzea, guk laster kenduko geunke, baiña zori txarrez on ez da orrelan: Mundua zabala da eta mundu zabalean gosea zabal dabil eta guk, banaka naiz taldeka alegiña egin arren, orren arin ez da kenduko gosearen legenar larri on gure mundutik. Dana dala, al doguna egin bear.

Ez da naikoa olako egoeran dagozan umeak eta




Ona emen labur: Asian 201 laguntza edo egitasmo eta orretarako 587 milloi pezeta; Afrika'n 128 egitasmo eta orretarako 383 milloi pezeta; Ameriketara 308 egitasmo eta orretarako 875 milloi pezeta.

Olako eginbideren bat sortzen danean, laguntza emon ba dogu, sinistu geinke an dagoala gure aletxua.

\* \* \*

Obeto litzake laterri guztiak egiten daben diru-banaketa egiten dabenean % 0,7 esaten dautsen on emongo balebe, baiña on egin arren be guk geurea bete bear dogu.

Guztion anaitasuna edo senidetasuna agertzeko biderik egokiena orixe litzake, gosedunai jaten emon.



## EUSKALERRITIK MUNDURA BEGIRA LITUANI ETA EUSKADI

Kristau egin zanetik seigarren mendearen betetzea ospatzen dau, errusiar komunisten mendapean, Lituani txiki bizkorak. Kristau eta Laterri egin zan aroaren orroitz; batera artu bai ebazan Lituani'k Kristoren sinismena eta nazio bereizi bat zalaren ezaguera.

Ori dalata, eskuñtz goxo bat bidali dautse II Jon Paul'ek lituanitarrei. "Osservatore Romano"n agertu da; lateraz. Eta, euskotarrantzat ere txit egokia dala eskuñtz ori, iduritzen yat neuri.

Lurralde txikia da gaur Lituani, naiz len askoz aundiagoa izan, Baltik-Itxasotik Itxaso Beltzaraiño, Europa-ren gerrialde osoa artuaz. Badau ontan, Galizi'ko mugatik Mediterran-Itxasoraiño, paleolitik-aroan edatzen zan Eusko-Erriaren itxura.

Gaur-egun, 4'tik 5 millora biztale dauz Lituani'k 59.635 kilometro laukoiko lurrean. Suizi baiño aundi-xeago lurraz; Suizi'ren antzeko jendez.

Eslabitarren eta germanitarren artean kokaturik ez daki iñok ziur lituanitarrak zer endakoak diran. Euskotarrak ere nola sortu geran ez daki iñork oraindik ziur.

Alatagutziz, ez dira berdiñak ontan Euzkadi ta Lituani, euskotarrok beste munduko endaeekin ez bait dogu aidetasunik, lituanitarrak berriz, eslabiarrak ez ba'dira ere, aide baiño geiago senide ere bai bait dira eslabitarrekin, antropogilari guztien aburuz. Eta, ziur-ziur, ari-tarrak dira, indi-europatarrek.

Euskotarrak berriz ez dira aritarrak, askoz leenago-koak baizik. Ementxe bertan, paleolitik-arotik mesolitik-arora bitartean orai data amar-amabost milla urte kromañoñdarrengandik sortuak. Ori..., Barandiaran'ek uste daun bezala kromañoñdarrek beraiek euskeraz egiten ez ba'eben!

Lituanitarren izkuntza eslabitarra dan ala ez argi ez dagoan gauza dogu. Ta naiz finlandiar, sueziar, germaniar eta poloni ta Errusi'ko eslabiar itzez beterik egon, aski zarrak omen dira bere oiñariak. Ain zarrak ere! Indi-europatarren izkuntza izandako sanskriteraren esari asko errez ulertzen omen dabez ba Lituni'ko nekazari eskola-gabeek!

Ontan ere ez dogu lituaniarrekin euskaldunok kide-tasunik. Euskera, bere bakartasunean, beste iñungo izkuntzekin lokarrik ez daun izkera bait da: "Lingua Insula": "Izkuntzen itxasoan, ugarte".

Lituanitarren izkuntzak ordea sendo ta bikain omen dirau. Gure euskera berriz...; ai gure Euskera!, euskaldun izateaz lotsatuta euskaldunek baztertuta, marsita-

ren eragiñez sortutako "el batuaren" bidez zauritua..., nork esan leike euskerak sendo ta bikain diraunik?

\* \* \*

XIII mendea arte "aide nagusi" batzuen mendean zatiturik bizi izan ziran lituanitarrak. Mende ortan, 1.251'garren urtean, "aide nagusi" aietan indartsuenak, Mindaugas Konteak, kristau-latterien laguntzarekin germaniarrei eta eslabitarrei aurpegi garaille eman aal izateko, bataioa eskatu eutsen IV Iñozentzio Aitasantuari. Errege tituloa ere eman zion Aitasantuak, bataiaketa ura politika utsak egiñarazia izan zala oartzeko.

"Bataio ura ez zan bear bezala gertutua izan; erriari ez jakon Kontearen jarduera atsegin izan, eta 1.263'ean dukeak jasan zuan eriotz ankerrak zearo zimurtu zuan udaberri aren sorkundea", diño, izkera goxoan Jon Paul II'ak bere gutunean. Egiaz gertatu zana, auxe da: etsaiak borroka-lekuan menderatu ostean, kristautasunari uko egin eutsola Mindaugas Konteak. Gizagaixoa, geziz eta azkonez izan zan erailla, andik laister.

Eun urte geroago, dukaterri zan Lituani, eta Duke Nagusia, Jogaila, berriro polikazko arrazoiek eraginda, Hedvigia Poloni'ko printzesarekin ezkondu, ta katoliko egin yakun. (Polonieraz, Jagellon esan oi yako Jogaila'ri eta Edubigis, Hedvigia'ri). Jogaila'k berriz, errege lez, Ladislao artu eban izen: Poloni'ko II Ladislao. Jaurerri bereziak izan dira beti Poloni ta Lituani Errege baten esanera).

Emakume bikaiña, Edubigis Erregiña; "emakume aratza" esaten dautso II Jon Paul'ek. Eta erregiñ onen eskutik, egiazko kristaua izan zan II Ladislao, eta gogor saiatu zan Lituani kristautzen. Eta ondo erantzun eutson erriak.

\* \* \*

Arrezkero, kristautasuna izan da lituanitarrak, lituanitar lez ainbeste eraso-aldi ankerren artean baturik gorde ditua. "Kristau-sinisbidera sartu zanetik, sinismena izan da erri oni (Lituani'ri) bere nor-izatearen eta zef-izatearen ezaguera eta sentipena eman dautsozana", (diño Aitasantuak). "Sinismenak eratu dau neurri ederrean Lituani".

Ez da gaizki esana. An ere, emen "euskaldun fededun"en antzera, "Lituaniko, katoliko-elizako" esaten bait da.

Gure Euskalerrian ere oso-oso goiz sartu zan kristautasuna, naiz gaur, gure artean, beren buruak ezker-

tiar agertu nai dabezanek beste era batera mintzatu. Eta kristautasuna sartu zan ezker kristautasunak eratu dau gure Euskalerrria.

Lituani, katoliko izan ez balitz, poloniar katolikoan, errusiar ortodosiarren, eta germaniar lutertarren artean zearo ezabaturik zegoan aspaldi. Euskalerrrian ere Elizak gaizkatu dau euskalduntasuna; eta erritasuna. Gure euskal-agintariek, Udaletan, Batzar Nagusietan, Aldun dietan, baztar guztietan, eraderaz egiten eben. Zer izango zan gaur gure Euskalerrria, elizetan apaizek euskeraz errezatu, euskeraz abestu, sermoi-egin, eta dotriña erakutsi ez ba'eben?

Zigorraldi mingarriak ugari izan dauz Lituani'k, batez ere XVIII mendean Errusi'ren menpera jausi zan ezker. "Lituani" itza bera erabiltzea ere debekatu izan zan. Orduan, Elizak gorde eban bizirik Lituani'ren nortasuna. Entzun Aitasantuari:

"Elizak eta sendiak gorde eben garbi, ainbeste eragozpeñen zama-pean fedea eta erritasuna. Elizari eta sendiari zor jake nazioak bere nortasuna eta bere nazio-izatearen-kontzientzia galdu ez izatea". Ori bera esan daikegu Euskalerrriaz ere. Gure elizetako apaiz jaunek eta gure sendietako gurasoek gorde dabela gure erritasuna. Erne, baiña!: Gurasoen atzetik, emen, maixu eta gidari lez, apaizak, beti apaizak!

Lituani'ko Gotzai bat, Motiejus Velancius, aipatzen dau Jon Paul'ek: "Dei sutsuak, —egin omen ebazan gotzai orrek—, apaizei eta gurasoei, gaztedia kristautasanean ez eze, erriko oiturez eta kulturaz ondo ezitzen saiatzeko eskatuaz". Ori..., Errusi'ren ankapean "Lituani" itza bera erabiltzea debekaturik zegoan denboran! Ori, eusko-apaizak Franko'ren ditaturtza ankerraren zigorraldian egindako Ian erritarra! Guk ez dogu on egitera

bultzatu gaituan gotzairik izan. Ezta jarduera on gorai-patu digun Aitasanturik ere. Etorriko dira egingo dabenak.

Geioago oraindik: "izkutuan ere —"clandestine"—, ibilli omen zan Gotzai ura bere eginkizunean, "nazioaren bizkarrezur" zan Jainkoaren Itza aldarrikatu gabe gelditu ez eiten". Emen ere, ez al eben apaizek "izkutuan" ibilli bear izan?

Gaur Errusi komunistaren uztarpean dago negarrez Lituani. Gaur ere bere nortasuna gordetzeko ez dau Eliza beste babesik. Bigarren-Ludi-Gudua amaitzerakoan arrapatu zuan indarrez Errusi komunistak, 1919 ezker, Laterri iare lez ain biziera bikaiña eraman eban 'Lituani txiki bizkorra. Litunitarrei ezer itaundu gabe, jakiña, artu eban Errusi'k Lituani gaixoa. Zer ajola jake komunistei erriaren naia?

Emen ere, indarrez, eta erriaren gurariari jaramonik egin gabe, komunismura eraman gura gaitue ETAtarrek eta bi adarreko alderdian bildurik dagozen gure marxitarrek. (Ez aztu, naiz itxuraz alkarrekin asarre ibilli, taktika-legeen araura bi zatitan banatutako Alderdi Komunista bat bakarraren adarrak dirala Herri Bata-suna eta Euzkadiko Ezkerra).

Komunismoa, marxismo oro lez, erritasanunaren etsai amorratu da. Orregaitik eutsoen orrelako gorrotoa Marx'ek eta Engels'ek Euskalerrriari. Euskalerrria "Europa'ko errien zaborra zala" esan ere esan bait eben!

Euzkadi'k fedea galtzen ba'dau..., komunista egiten ba'da, zenbat iraungo dau bere erritasunean?. "Euskaldun fededun", esaten zan atzo. "Ez fededun eta ez euskaldun", esan beariko ote da biar?

LATIEGITAR BIXENTE

**ZER**

**ALDIZKARIA**

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

**ARPIDETU ZAITE!**

**ZEE**  
EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategui, 14-2.º - B I L B A O -1

## ONDO IRABAZIA (D. KLAUDIO'ri)

Orixe ziur izan zan Gallastegi tar On Klaudi'ri joan dan Urtarrilla'ren 29'an egindako illeta, Bilbo'ko San Anton'en Eleiza Nagusian! Egun orren goizean jakin neban gure On Klaudio abade andia, Euzkera-zale jakintsu ta entzutentsua, "ZER", aldizkari onen idazle ta olerkari trebea, 81 urtekoa, il zala.

Beingoan bere illetako Mezea batera esaten joateko asmoa artu neban.

Asmoa nebanez, joan be joan nintzan.

Iñoz iñori egin leio omen andiagorik?...

Gitxitan uste dot. Esan dogun eguneko zazpi ta erdietan San Anton'en jazo zanak Erroma'ko Kaise-rrek, errien irudimenez, Olimpo'ra igotean, goratze egi-tea zirudian. Eleizbarruti'ko Gotzain Jauna, 100 bat abade Mezea batera emoten egozala, Ardanza Lenda-karia bere andreagaz aurrean Eleiz-tokia bete beterik. Ni bertara eldu nintzan ordubete lenago. Eta sarturik itandu neban nun ete egoan gorpua. Altara aurrean egoala esan eusten. Biotz zarrazta andia artu neban emen munduan izan zanaren eta orain Goian Dagona-ren gorpua begiz ikusita. Bai egiazko gizaundia gogoz eta gorputzez gure On Klaudio onetsiaz 163 kiloz astu-na ta 1,80 neurkin luzea! Orain il-kutxan, il jantziz estaldurik, arpegi odolbako zuri-zuria biotz ikara emote-ko eran. Ene Klaudio ona, ain adoretsua ta kemenez bete, zelan zagoz orain, gizona! ...Badakigu berbiztuko zarala Jesus-Jainko Irakasle onagaz... Osterantzean dana bertan bera itxiteko zera da zure itxurea...

Nik eleizkizun onetan iru oarkizun goragarri ainbes-te esan gura dabenak zomatu nituan: bertsolariak, iru txistularien jardun-aldia ta eleizako abesbatza. Bertsola-riai buruz bi zireala esan daigun, bat Zeberio'koa, bes-tea Elorrio'tarra; biok emon eben ekiñaldi ederra. On Klaudi'ren itxuraldi batzuk gure Bizkaiera garbian, eus-kalkirik aberatsenean, bertsolarien neurkera berarizkoaz, doiñu atseginkorraz, gizon gazteen abots ederraz. Zebe-rio'koak, batez be esan ebazan dardara naastu baiña entzungarriak. Ikusten zan biek zireala bertsolarien erti-lanean maisu osoak.

San Anton Eleizako Abesbatza. Bizkai guztian ta Bilbo'n bertan be ospetsua izanez, jakintzat artu bear

geunke ondo abestuko ebala. Baiña nik emen bere jarduera bat banan gaillendu gura neuke: Lenengo irakurgai ostein abestu ebana, Back egillearena, gizon ta andren Iau abotsez: benetan lilluragarriak ziran eresi igesteak, polifonizko eresi soiñuak. Eta zer esango dogu Mezerdi osteko txistularien jardun-alditzaz? Iru ziran eta danboliñariagaz lau. "Mendi-Negarraz"lango eresi goibel samurra jo eben, ez bardiñez, bakoitxak bere soiñuaz baiño. Gero, Jaunartzean, Abesbatzak Aita Iru-garrizaga'ren eresi batzuk iru edo lau Bakar abeslaria amabost, amazazpi urteko neskatillaren bat zan. Bai abots, eder, garbi, ugaritsua! Aren tango abots garden garbiagorik urrut ikuzkiñetan be ezta entzuten.

Zelan ez aitatu idazlan onetan gure Gotzain Larrea-ren berbaldi mamintsua? Bere berbaldian Meza-zuzendari Gotzain Jaunak Goian Dagon On Klaudio'ren kristia-ñau onoimen gaillenduak, aren lan-zeregin erlejiño ta gizarterako onuratsuak. Eta esan euskunez, Gallastegi-tar On Klaudio lenengo abade izan zala Bizkai-URI-Buru, Bilbo'n Meza Nagusia Euskeraz aundikiro egin ebana.

Illeta elezikizuna San Antonen amaituta, Gallastegi-tar On Klaudio'ren Gorpua'ri Agur egin geuntson "Agur Jaunak" abestiaren soiñuz. Bilbo'ko Udaletxe'ko talde txistulariak jo eban Boni Fernandez zuzendari dala.

Oraindiño gudea gura dabenak ukubillak jaso ta erakutsiz "Eusko Gudariak" abestia abestu eben. Guda zelaitara joan daitezala, eurok lenengo. Orain 50 urte baiño geiago dirala Errepublikanuekaz bat egin da egon gintzazan an geure Euskadi'ri nortasuna emoteko, eta badakigu zer dan ori. Gure Jaun Erria gertu egon da ta beti izango da asteke lanean Euskadi Alkartu ta Suiza lango baten alde. Baiña ez su izkilluz gerretan urkola-gunak ilten. Ori ez. Esan daigun azkenean Jainkoaren ondora joan jakun gure On Klaudio ona, gizon eragille itzelezkoa zala. Or itzi euskuzan ta or dagoz bizi-bizirik Parrokien Mixiolari Lekaimeak ta Jose Antonio Retola-za'gaz irasi eban umientzako "Kili-kili" aldizkaria ta lana.

LETONA'K



izan ziran Balentin'en gurasoak. Juan Isidro elorriotarra zan, Udalaiz eta Anbotoren oiñetan dagoan erri polit-  
txukunekoa. Gaur be zoragarri agertzen da Elorrio ber-  
taratzen diranentzat. 1356'garranean sortu eban Tello  
Kondeak.

Bost milla biztanletik gora daukoz gaur. Erri-eliza  
eder bi dauz: enparantzan dago Euskalerriko ontxue-  
ta erritik pizkat kanpora Asunsiondar pralleena bestea.

Monja mixiolariak be ba-dira erriko seme batek sor-  
tuta. Elorrion jaio zan ba Juan Isidro Berrio-Otxoa  
Balentin'en aita. GAZTANETA izeneko auzo txiki-  
politean. Luzea, sendoa ta argal-zamarra zan. Danen  
aiskidea, Danai laguntzeko prest egoan beti. Ez eukan  
areriorik ez errian ez iñon.

Biotz onekoa ta oso eliztarra. Arotzeria eukan etxean  
eta antxea egian Ian. Santa Anako monjatxuai be ain-  
bat Ian egin eutsen; koruko zilleria berak egiña da  
Esteban Ardantza Iagun ebala.

Elizan be egin ebazan bear batzuk. Bardin Jose  
Maria Elizalde abade Jaunaren etxean be.

Jose Maria abade jaunak Antzuolako neskatz gazte  
bat eukan neskame. Maria Monika bere izena. "URRU-  
TI" auzoan iaioa 1797'garreneko Maiatzaren 4'an. Zor-  
tzi neba-arrebetatik seigarrena zan. Aitarik gabe geratu  
zan 9 urte ebazala.

Alaia, sendoa ta eliztarra zan Monika neskata. Jose  
Mariak etxekotzat eukan neskametzat barik. Eta ain  
zuzen be, antxe abade-etxean alkar ezagutu eben Isi-  
drok eta Monikak. Eta berezko danez, alkarganako mai-  
tasuna sortu zan bien artean.

Abade jaunak be maite-maite ebazan biak eta alkar-  
tasun aun ondo ikusten eban.

Jose Mariak berak ezkondu ebazan 1825'gko. bagi-  
llaren 15' n. 27 urte ebazan Isidro, 29 Monikak. Zorion-

Errentan erosi eban lurra urtean 27,50 laurleko  
emoteko.

Kontratu onen kopia Balentin'en etxean dago gaur  
be. Eskuetan euki dot.

Etxe au 1825'garrenean erre zan. Ormak bakarrik  
lenbailen amaitzeko. Alak egmda be ezm amaitu  
eban berak nai eban egunerako. Negua zan eta Monika  
ama izateko bidean egoan.

Diruak be amaitu jakozan. Jose Mari'ak lagundu  
eutsan eta biar eban dirua lortu ongille batzuen artean.  
Azken baten amaitu eban Isidrok bere etxea amar ille-  
bete gogor ekiñez. 1826'gko. Aprillan asi eban eta  
1827'gko. otsaillan amaitu. Pozarren egoan etxe baten  
jabe zala-ta. Diruari erantzuteko ipotekau egin eben  
etxea. Bere izenpea ta letrea ikusi dodaz.

Laster ordainduko eban zorra bere lanagaz.

Ordutik ona 159 urte joan diran arren, etxeak ez  
dau izan aldakuntzarik. Aurrea arri landuzkoa dauko,  
ataria euzko etxe guztiak edo geienak lez zabala ta  
sarreran ezker-aldean dago Isidro ta Balentinen arotze-  
ria gaur denda biurtua.

Arotzeriak 6,50 metro eukozan aurrez, 6,90 luzeran  
eta 3 goruntz. Ezker-aldean arategi bat dago. Monikak  
paitarra saltzen eban goizaldean. Beragana joan oi ziran  
goizero paitarra artzera solo-lanak egin aurretik barrua  
berotzeko ta lanerako gogoa artzeko. Etxeak pixu edo  
bizitegi bi ta kortea daukoz eta bizilekuak alde bietara.  
Aldakuntza txiki batzuk egin dira barruan. Apartekorik  
ez.

Balentinen sendi-familia lenengo bizitegian bizi zan  
ezker-aldean; Balentinen gelatxo sukalde-ondoan egoan  
eta gaur be bardin dago. Bere amak Balentin gazteak  
gabaz otoi egin eta gorputza zigortzeko jagiten zanean,

zer egian ikusteko egin eban zuloa be an dago. Santua-  
ren beste gauza batzuen artean il ebeneko irudi ederra  
ikusitako gela nagusian; irudi au bere lagun batek egina  
da.

Eta beste oroi batzuen artean oneik agiri dira: Balen-  
tinen gurasoen argazkiak; Logroño-ko Seminarioan sei  
urtetan erabili eban koltxoia, bere alboagin bat; orobat  
Seminarioa itxita etxean Balentinek egin eban ogea;  
eskolako katoia; latin-liburua; filosofi-oarrak; Irutasun  
Deunari egin eutsan Trisajioa, Tonkindik 1858'garren  
urtean Manuel Riaño bere Nagusiari egindako idazkia;  
bere aitari ta amari egindako idazkiak; *relax mental del  
alma*, lantxua ta abar. Maitekiro gordetzen dabez bere  
sendeak.

Etxe onetan bizi izan ziran Isidro ta Monika euren  
iru seme-alabakaz. Juan Mari Balentiñen anaia gaztetxo  
zala ozin(poza) baten ito zan 5 urte ebazala Abustua-  
ren 27'n; eta Felipa Elbira etxe onetan bizi izan zan  
bere gurasoakaz, Jose Agustin Isasi'gaz ezkondu. Ogei  
urtedun zala il zan Felipa Elbira. Jose Agustin suiña  
Maria Martina Goenaga Arizti lobeagaz ezkontzea gura  
eban Isidro, baiña Estefani Ardantzagaz ezkondu zan.  
Ezkontza onetatik jaio zan Kastor Jakobaren aita. Jose  
Agustin alargun geratu zanean Eibarrena joan zan eta  
an bizi. Isidroren etxera ezkondu ziran Esteban eta  
Maria Martina. Isidro eta Monikak etxe-erdia emon  
eutsen Maria Martina'ri ta beste erdia Estebanek erosi  
eban. Ardantza sendia bizi da gaur bertan; etxea euren  
dabe.

Isidro'ren iru- seme-alabetatik nagusia izan zan ospe-  
tsuena: Balentin zarrena Tonkingo Obispo ta Martiri  
agurgarria.

## JAIOTZA

1827'gko. Otsallaren 14'n jaio zan Balentin arratsal-  
deko lauretan gela illun baten. Eguna ba'etorralla-ta  
adiskide batzuen etxe batera eroan eban Isidro Moni-  
ka 13'n aurregunean. Eztitan egozan bai Isidro ta bai  
Monika euren semetxua eukela-ta. Poz andia euren.

Zer izango ete zan umetxu au? Biaramonean 15'n  
bateatu eben eliz nagusian. Balentin Faustino izenak  
ipiñi eutsen. Balentin santu onen egunean jaio zala-  
ko ta Faustino santu onen egunean bateatua zalako.

Jose Maria Elizalde apaiz jaunak, Isidro ta Monika  
ezkondu ebazan berak bateatu eban.

Balentiñen jaiotetxea, Museo biurtuta dago gaur.  
Barrizkuntza batzuk egin eutsen etxeari jausteko  
arriskuan egoan-da; alan be Balentiñen egunetako era-  
ra: sukaldea, ateak, leioak, aulkiak-eta lengo gizaldieta-  
ko itxura dauke. Bizkai ko Aldundiak emon eban orre-  
tarako dirua.

Museo au osotuz doa apurka-apurka. Balentiñen  
ainbat gauza ikusi daitezke bertan: Bere idazti batzuk,  
ikastaroetan erabili ebazan liburu batzuk, berak egin  
ebazan oge ta maia; berak erabili ebazan tramanku-  
luak: arotzeriko garlopa, zerria ta abar.

Balentin jaio ta 15 egunera Isidro ta Monika euren  
etxera joan ziran bizitera. Eta etxe onetan jaio iakezan  
beste ume biok: Juan Mari ta Felipa Elbira.

Jostun bikaña zan Elbira. Jakoba Ardantzaren etxean  
dago gaur be berak eskuz egindako lan polit bat.

Elbira bere gurasoakaz bizi zan ezkondu gero be.  
Ume bat izan eban: Katalin, baiña jaio ta 13 egun  
barru il zan eta bera Elbira umea jaiotzean. Zartada  
aundia artu eben Isidro eta Monikak euren alabatxua  
il zanean.

Balentiñek bere samin aundia agertu eutsen gurasoi  
egin eutsen idazkian.

Amaren antza ei eukan Balentiñek eta Aitarena  
Elbirak.

Balentiñen argazkirik ez jaku geratu, baiña beragaz  
urteetan bizi izan zan pralle domekar batek Zakarias  
Martinezek zuzenduta, egin eban bat.

## BALENTIN MUTIKOA PELOTA-ZALE

Bere gurasoakaz bizi zan Balentin mutikoa. Urtee-  
tan gora joan Balentin eta bere aideko adiskide asko  
eukazan.

Balentin pelota-zale amorratua zala esan eutsen Elo-  
rioko monjak. Frantziska ta Josefa monjai entzunda  
eurek be. Edesti polit au gogoratu eutsen:

Zortzi bat urte ei eukazan Balentiñek. Pelota-jokoa  
ikusten egoan egun baten gurasoak ezer ez ekiela. Orduak  
aurrera ta Balentintxu adi-adi jokoari begira. Erlojuaren  
ardurarik ez. Bere billa dabil Monika... diadarka... ezin  
dau aurkitu... Isidro be bere billa dabil arotzeria itxita.  
Samea luzatuta... beatzen gainean jokoari hegira dagoa-  
la ba- diñotso Balentineri bere lagun batek: I Balentin:  
ire aita iatok or; Laster aitu eban Balentiñek arotzeri-  
ko neurri-zotza eskuan ebala beraganantz ikusi eban-  
nean eta ariñari emon eutsan. Etxean zan aita baiño  
lenago. Jakobaren etxean dago neurri-zotz au ta eskue-  
tan euki dot neuk be. Neurri-zotz beronegaz berotu  
eban bein Isidro Kastor bere lobe be. Kastor mutiko  
zanean mutiko danak edo geienak lez joko-zale ei zan  
Jakoba bere alabak esan eustanez. Kastor onek okerke-  
riren bat egin ei eutsan bein bere osabari ta Isidro  
ba-diñotso: Txotxo: makilla onegaz ekarri naioan bein  
Balentin pelota-tokitik eta i be onexegaz astinduko aut  
barrero olakorik egiten ba'dok. Kastorrek beraz esan  
eutsen jazokun au Jakoba alabari ta onek niri.

Balentin mutikoa jolas-zale zan danak lez baiña beti  
be biotz onekoa. Maxu onak eukazan orretarako: bere  
gurasoak.

Jose Juan Etxebarria abade jaunak irakatsi eutsan  
irakurten dotriñaz batera ta 9 urte bete ebazanean esko-  
lara bialdu eben bere gurasoak, Antonio Konbenios  
izan zan bere maxua. Kontzeju-etxe-berengo bizile-  
kuan eukan onek eskola. Maxuak sekula ez ei eban  
zigortu iñoan Frantziska monjeak.



Musika-zale be ba-zan. Flauta joten ei eban eta ederto jo be. Justo Bengoa zan bere maxua musikan. Naizta mutiko gaztea izan eskolatik urtenda aitari leguntzen eutsan arotzerian. Amabi urte inguru ebazala artu eban Ienengoz Gure Jauna. Isidro ta Monika pozarren egozan euren semetxuagaz.

## SANTA ANAKO MONAGILLO

1700'gko. Maiatzaren 29'tik dagoz domekar monjak Elorrioren. Santa Ana dau izena euren konbentuak. Eliz-konbentu au plazatik ur-ur dago. Isidrok lan asko egiten eutsezan monjai. Meza-erazotekorik barik egozan aldi aretan monjak eta Isidrori esan be bai. "—Neuk daukat bat —diñotse Isidrok— baiña ez dakit ba... orretarako izango ba'da... Amar urte besterik ez daukoz. "Ekarri egizu ta ikusiko dogu" —esan eutsoen monjak—.

.An zan Balentintxu urrengo egunean bizkor-bizkor joanda. Oso atsegin izan jaken mutikoa. Zur-antza artu eutsoen eta zurra zan izan be Balentintxu aldi aretan.

Laster ikasi eban meza erazoteko era. Bostetarako an izango zala egunero agindu eutsen monjai mutiko koxkorrak. Egun baten baiña loak artu eban eta zerbait berandutxuango eldu zan. Ez eban estualdi makala eroan mutikoak. Errundun ez zan arren, lau aldiz eskatu eutsen parkapena monjai.

Amairu urte egin ebazanean sakristau lez geratu zan: eliza, aldarak eta sakristiko gauzak garbi eukiten ebazan beti. Amabost iterarte izan zan sakristau. Egunean trakur andi bat ibabazten eban, illean iru laurleko; urtean 36 laurleko.

Berrio-Otxoa santuaren oiñatzak ikusi gura dauzanak Santa Anako eleizatxo ta konbentua be ikusi bear. Ainbat gauza ta oroi aurkitzen dira bertan.

Eleizan eskumako aldar dagoz utxa baten leiarbarruan bera lotzeko erabilli ebezan kateak; matrail-azur eta albo-agin bat be bai. Kateak gaur egun be osorik dagoz. Bilbon egon ziran 9 egunetan Bidebarrieta kaleko 14'n danak ikusi egiezan. 1913 urtean Bilbo'tik. Elorriora eroan ebazan. Jai andia egin eban egun aretan Elorrio erriak.

Biotz-ikaraz ikusi dodaz kateok eta biotz-ikara gogoz bein eta barriro Presbiterioa ta Sakristia. Zenbat gomutaki Martiriaren maitaleentzat! Zenbat oiñatz! Zenbat

aldiz belaunikotu zan bera Balentin mutiko zala ta gero gaztaroan be. Aldara... sagrarioa... maiak... aldi areta koak dira; ainbeste aldiz ukutu ebezan bere eskuak, ainbeste begirakun eta otoitz zuzendu ebazan sagrario aretara. Sakristiko tornea, eliz-jantziak, eta gordetako kutxak ordukoak dira. Biotz-ikara andiz ukutu dodaz; itzal eta maitasunez laztandu. Santu baten oiñatzak eukezan-da... biotza samurtzeko da.

Monjatxuak maitasunez gordetzen dabez gauzok euren monagillo-sakristautxuak egunero erabilli ebazan gomutakiok. An ikusi leitekez santuaren albo-agiña, jantziak, argi mutillak eta aldara-nagusian egoan Kristoren Gurutzea ta abara. Nork laztandu ez biotz-ikaraz Santuak egunero artzen eban Kristoren Gurutzea!

Andik ur-ur gela txiki-illuntxu bat. Antxe artzen ebazan Balentin gazteak Aita Mendozaren irakaskizunak. Gomutakirik onenak Museoa dagoz gaur.

Marmolazko kutxa andi-eder bat dago bertan: kutxa onetan ekarri ebezan Barzelonatik bere gorpuzkiñak 1886'gko. Bagillaren 6'n. Barzelonako euzkaldunak emon eben kutxa au ta bertan egon ziran gorpuzkiñok 1915 arte. Eliz nagusiko Santuaren aldarapeko marmolazko kutxa eder baten dagoz gaur. Eta bertan orobat Bizkai-ko semeak emondako mitra, bakulo ta palmera be.

Sakristiko lokutorio-itx-toki onetan egin eutsen agur Balentiñek bere monjatxuai mixiño-lurraldera joan zanean eta bertan ain zuzen be egon oi ziran sarri Isidro ta Monika euren semea ilda gero.

14 urte eginda eukazan Balentintxuk; Santa Ana-jaiak laster izango zirala-ta aureskua egin bear ebala esan eutsan txantxetan monja batek. Mutikoak benetan artu eban eta zein neskatotxugaz egingo ete eban galdetu eutsan monjeari. Manuelatxu barruan konbentuan ikasten egoan neskatotxua artu zeikeala erantzun eutsan.

Santa Ana-eguna eldu zan eta aureskua asi zanean adiskide bi bialdu ebazan konbentura Manuelatxu bialdu egioela esanaz. "Orraitio gure sakristautxuak ondo jo daust gaur adarra esanda —Manuelatxu ezin joan zeitekela-ta bialdu ebazan mutiko biak tornuko monjak.

Jazokun au ta beste batzuk monjen agotik entz<sup>ndakoak</sup> dira.

Olakoxea zan Balentin mutikoa.

GOIRIA



## URTEROKO BATZARRA (1987 EKINTZAK)

Gabon bazkide maiteok:

Barriro be, urtero lez zuen aurrean gaituzue, erakunde maite onen gora-beerak emoteko, buruturiko igazko ekin-tzen azalpenak ain zuzen be.

### IKASTAROA

Beste urteetan oartu genduen ikasleen beerakadea, aurtengo ikastaroan be jazo da. Aurtengo ikasleen kopurua eun bat izan da, eta aurrenekoan 175koa.

Alkarrizketearen jardunak beti lez izaten doguz.

Gauzak olan jarraitzekotan, aurtan ez dogu udako ikas-tarorik izango, dagokion eskaerea sendotzen ez ba'da beintzat.

### IPUIN SARIKETEAK

Urtero lez aurtan be Gabonilla'n ospatu dogu Sariketa au. Kontuan izan dabez gure epaikariek asmamena, aria, joskerea, idazkerea, iztegia, eta aditz-erabiltea. Ona emen erabagiak:

1'go saria: "Aitor'en eriotzea". Goikoetxea'tar Iñaki'rena. 40.000 lko.

2'gn saria: "Mikel eta arrain gaiztoak" Zubikarai'tar August. 30.000 lko.

3'gn saria: "Sorgin-Batzarrak eta gizon konkorduna" Alzola'tar Elixe'rena 30.000 lko.

4'gn saria: "Okela bikain eta merkea" Kortajarena'tar Andoni'rena 10.000 lko.

Izan be, sariketa onetara aurkeztutako Ianak mailla on-onekoak izan dira, eta sari-banaketea ez da erraza izan. Igaz be auxe jazo zan.

### BIZKAIERAZKO ASTEA

Gure Iurraldeko euskera aitzuari bear dan lez eusteko, urteoro ospatzen dogun aste begiko au izan genduan Esko-lapioetan, eta Batzar au ustiatuz, bioakie gure eskerrik berotsuena dalako ikastetxeari, euren aretoa gure aukeran ipinteagaitik. Orrilla'n ospatu zan urrengo egitamuz:

4'gnean, Astelena: Eusko Jaurlaritzaren 50 urteak. Zubikarai tar Augustiñek.

5'gnean Astartea: Arrantzaleen oiturak Bizkaian: Erko-reka'tar Josu Iñaki'k.

6'gnean Eguastena: Euskal Liburuen eta aldizkarien argitalpenak gaur. Legarreta'tar Josu'k.

7'gnean Egubena: Jaungoikozale Taldearen kondaira. Onaindia'tar Santi'k.

8'gnean Barikua: Gernika sutan (50 urte) Aurre-  
Apraiz'dar Balendiñ'ek.

Itzaldi orrean ostean alkarrizketak izan genduzan, guz-titariko gai ta eritxiak aztertuz.

### EGUTEGIA

Aspalditik urtero-urtero argitaratzen dan egutegia ager-tu zan igaz be. Dakizuenez, "Euskerazaleak" berak aton-duta, eta ordaintza aldetik Aurrezki Kutxaren (Bizka'i'koa) babespean. Pozez beteten gaitu arazo onek, jendeak gogoz irakurten dauala badakigu-ta. Gure erriak ez dau zaleta-sun andirik irakurteko, eta olako irakurketea guztitariko jendeari baiña jende xeari batez be eltzen jakiela jaki-teak, pozten gaitu benetan.

### LAUAXETA'RI GORATZARREA

Gure olerkari au erail izan zanetiko 50'gn urteurrena izanik, "EUSKERAZAINTZA" k gure laguntzaz atondu eban Mungia'n merezi eban goratzarrea Bagilla'n. Meza ederra ospatu zan Mungia'ko parrokan, sermoia Latiegi-tar Bixente'k emonda, abade askok lagunduta, eta eleiza-ren abesbatz bikaiñak edertuta.

Eguberdian, Billela'ko Kultur Etxean, eta eun ta berro-geitamar entzule inguru izanik, dalako goratzarrea euskal-tzale oneik atondu eben: Akesolo'tar Lino'k - Onaindia-tar Santi'k - Zubikarai'tar Augustin'ek - Aurre-  
Apraiz'tar Balendiñ'ek - Arostegi'tar Luis'ek - Solozabal tar Pauliñ'ek - Zubiri'tar Iñaki'k.

Gure olerkari kutunaren anditasuna, abertzale, olerka-ri, gudari ta idazletzat aztertu izan zan, eta entzuleek pozik jarraitu eutsien gai zudugarri orrei.

Gero, lagun-artekeo bazkari atsegiña Sollube Jatetxean. Izan be, jai aitzu-eziña gertatu zan.

### "ZER" ALDIZKARI

Ekintza au aipatzen dogunean pozez beteten gara, Bizka'i'ko euskalki zapuztu ta aitzuari, gure aldetik aal dogun arnas barria emoten dautsagula egiztatzean batez be. Olan jarraitzea gure asmoa da, eta orretarako ez dautzagu aldiz-kari maite oneri aalegiñik ukatuko.

Igaz lez, esango dautsuet, zeozer esateko dozueno, dei egiten dautsuegula betebear onuragarri onetan zuen idazlanakaz laguntzeko.

Badirudi gure illeroko au gero ta obeto datorrela. Egin dagigun ba gure Bizkaiereak merezi dauan aldizkaria.

## BATZORDEAREN BARRIZTAPENA

Aurten, Lendakari, Diruzain eta maiko baton ordeztekoari, dagokion deia zabaldu genduan, baiña zoritxarrez barriztapen orretarako ez dogu iñozgo esondapen edo proposiziorik artu. Au tamala da benetan, gure artean kimu barrien sortzea ez dogulako ikusten, eta gaztetasun barik, iraupen luzerik ez.

Jarraituko dogu ba aal dogun ondoen gauzak egiñez, baiña mesedegarria izango litzakigu, lagun gazteen odol barria.

## LAGUNTZAK

Ona emen gaur kezkatzen gaituen arazorik larriena. Igazko diru-laguntzak gain-beera gitxitu dira, eta euskereko maitasunez burutzen doguzan ekintzetarako, Bizkaiko Erakundeek bearrezko diru-laguntzarik emoten ez ba'dauskue, estu ta larri ikusiko dogu gure burua. Egoera oneri buruz, auxe diñotsuet: Ez dakigu, Euskal Astea, Ipuin Sariketea, Egutegia, Liburuaren argitalpena, eta beste ekintzak aurten, burutu aal izango doguzan.

Batzordekoek oso illun ikusten dogu gure ekintzen etorkia, eta diru-arloan benetako obakuntzarik etorten ez ba'yaku, gauza asko egin barik geratuko dira. Euskeraganako maitasun utsaz diardugu gure betekizunean, eta maitasun orrek bearrezko erantzuna besteanean aurkitzen ez ba'dau, merezi dogun zoria izango dogu. Biarko negarrek ez dabe gaurko kaltea atonduko.

Besterik ez.

ZUBIRI TAR IÑAKI  
(Lendakaria)

## KILI-KILI 1987

1987 urtean zear Kili-Kili bere lanari ekin deutso. Betiko ekintzak eroan ditu aurrera: Kili-Kili aldizkaria, Kili-sariketak, Kili-irratiak, Kili jaiak, Kili-ikastaroa, Kili-txorta...

Kili-txorta aitatu dogun ezker esan bearra dogu aurreko urtean argitaratutako "Jesus Nazaretarra-1" liburuñoa zabaldu egin dala urte onetan Bizkaiko eskola guztietan, duan, amar milla ale, ume eta gaztetxo euskaldunen artean. Eta on dala-ta ainbat esker oneko karta jaso ditula Kili-Kilik.

Sariketei buruz ere esan bearra da, Sariketak askotarikoak izanik, bat izan dogula andia: "Ezetx Igarri" sariketea. Amar milla eta geiago umek parte artu dabela. Sariketa onen elburua, umeen eskuetara irakurgaiak eldu erazoz, irakurteko zaletasuna sortzea eta bultzatzea izan dala. Orretarako komiki erako orri bikoitz bat zabaldu izan dala umeen artean bete edo osotu dagien. Betetea erreza da, baiña egin egin bear da. Egiten dabenei, aldi baterako aldizkariaren arpidedun duan egiñaz gaiñera, beste sari asko emoten jake eta zazpi bizikleten zozketan parte arteko eskubidea. Euskerea pozgarri biurtzen dogu onelan.

Umeen pozgarritzat ere "Jolasegunak" eratu genduzan, udan, Oromiño-ko Maristen etxean, leku zoragarrian. Eta egun guztian eta egun guztietan euskera utsa erabilirik euskera utsean bizi leitekeela erakutsi geuntsen gaztetxoai.

Urtea amaitzera joiala, beste ekintza bateri ere eldu

geuntson Kili-Kilikook: langelako zeregiñak beste modu batera eratuta eta tresneria barriztu eta gaurkotuten asi gintzazan.

Lan-orduetan gure langela jakina danez, itxita dago; urrutizkin automatiko batek erantzuten dau eta mezuak jaso. Lan-orduetan, bada, ez dago inor, Kili-Kiliko langilleok beste toki baton dauke-ta lanbidea eta ogibidea. Kili-Kiliko langilleak borondatezkoak dira; Kili-Kilik ezin dau alogerekorik artu. Eta onek atze txarra dakar: sarri, ezin izaten dauz bete bere betebearrak. Ori dala-ta ordenadore bat erosi dogu eta uste dogu asko lagunduko deuskula aurrerantzean.

Urteroko Memoria labur au egitean beti dakargu azalera daroagun kezka zaarra: euskerearen atzerakadea.

"Euskerearen atzerakadea eta alfabetatzea" izenburu dauala Jaurlaritzako Euskera Aholku Batzordekoa dan Jose Antonio Retolazak, bertarako, bertakoak eskatuta, egindako idazlana aitatu gure dogu emen.

Labur-labur esanda, onelakoak diñotsez idazlan orretan:

1. Euskaldun zaarrak badoaz beste mundura eta mundu onetara datozen barriak naiz eta ikastola edo eskola barruan euskerea edo euskeraz ikasi, kanpoan ez dabe ezpanetan erabilten.

2. Euskerea ezpanetan erabilteko, leenengo ondo ikasi bear da. Ono ikasteko, belarriz ikasi bear da. Belarriz ikasitakoan, begiz gero, alfabetatzearen bidez.

3. Alfabetatzea, ba, norberak belarriz ikasitako euskeran egin bear da; Bizkaian, bizkaieraz; Gipuzkoan, gipuzkeraz.

4. Euskeraz berez-berez egiten dauanak daki berba ondo egiten.

5. Euskeraren irakasleak berez-berezko euskerea erabilik bear dabe ezpanetan ondo irakasteko.

6. Izkuntza bat ikasteko sasoirik egokiena 4 urtetik 13-ra bitartekoa da.

7. Alfabetatzeak mailla bi ditu: 1.º izkuntza belarriz ikasiala edo ikasitakoa begiz ikasi. Au da: belarriz ikasiala edo ikasita gero irakurten eta idazten ikasi. 2.º garren mailla: dakiana auznartu eta auznartuz, jabetu.

8. Alfabetatua dan euskalduna gertu dago Euskalerriko edozein tokiko eta ondo aoztatutako euskerea ulertzeko.

9. Alfabetatuak ez dauko euskeraz egiteko eragozpenik, eta ez dau beingoan erderara joko.

10. Alfabetatuak oinkada luzea emon dau euskera baturako bidean.

11. Bide zuzenetik joanda ere larri ibilliko gara euskerea aurrera atarateko; bide okerretik, barriz, beingoan joango gara ondamentira.

Euskera bizitik ez bagoaz bide okerretik goaz. Eta laster berandu izango da.

Berba onekaz amaituko geunke aurtengo Memoria au, baiña ezin. Ezin dogu amaitu ildako Manu Ziarsolo, gure "Abeletxe" euskerazale eta abertzale zintzoa gogora ekarri barik. Bera izan zan, aldi batean, Kili-Kiliri laguntzeko Euskerazaleak izendaturiko lankiderik gartsuena. Zenbat eta zelako karta gozo eta bigun idatzi eutsezan Kili-Kiliko umei Kili-Kili-ren izenean! Eskerrik asko, Manu! Gogoan zaitugu!

## LATERRI TXIKIAK

Igaz txango edo bidaldi bat antolatu genduan erbeste lurralde batzuk ikusteko asmoz. Lenengo Afrika'ko Kenia'ra joan giñan. An ikusi al-izan genduan Masai deritxon erria, antziñako abenda jatorra, bere jazkera, oiturak eta bizi-modu bereziakin. Baita aukera izan genduan argazkizko safari bat egiteko, bas-abere mota guztietarikoak ikusiaz: leoiak, elefanteak, astanabar edo zebra, lepa-luzeak eta abar. Ikusgarria zan. An ebiltzan piztiak basoan, izadi erdian bertantxe, aske ta lasai. Batzuetan etzunda, bestetan ariñeketan eta nozean bein orroika, agiñak eta erpeak agirian, euren asarrea erakutsiaz.

Gure egitarauari jarraituz, Indi'ko Ixaso'ra joan giñan. Kenia'tik milla ta seireun aneurkin egazkin baten itxas-zear egaz egin ondoren, eldu gintzazan SEYCHELLES deritxon ugartetara. Erri berezi ta jatorra. Tropiko ondoan dagon ezkeru, bere landaratza ugaritsu nun-nai agertzen da. Kokozaleak ba'zarie an asetu zaitekeze. Bazter guztietan dagoz kokadi edo koko zugaztiak euren egali ederra ta gozoa eskeñiaz. Giroa be lekuari dagokiona da, bero-aldekoa: ia egon-eziñekoa.

Ara emen Laterri bat benetan txikia. Gure Bizkai'ko Barakaldo baño txikiagoa izan arren, bere buru-jabetasuna daukana. Larogitamabi ugarte dira guztiz ta euretariko geienak, txiki-txikiak, an iñor bizi ez dala. Itxastxortalde bat dirudie ur gañean kokatuta, euren askatasunaz arro-arro ta bera zaintzen.

Gertaera edo izate onek eroaten gaitu Laterri txikiak dirala-ta zerbait esatera. Sarr-askotan entzun izan dogu Euzkadi erri txikia dala aske bizitzeko. Egia da erri txikia dala, bai biztanlez bai lur-zabaltasunaz. Ezin geinke besterik esan, ukatu eziñekoa da ta. Baiña ludi edo mundu zear begikada bat emon eta beste erriren batzuekin parekatu ezkeru, aundia dala be esan leike. Zergatik? Ba arrigarrizko Laterri, Euzkadi baño txikiagoak, ikusten diralako an emenka.

Baiña aurrera jarraitu baño len, esan gura dautzuet an jazotako gertaera bat guztiz pozgarria. Ludi baster ezkutu aretan, arrantz-ontzi bi ikusi genduzan Victoria'ko kaian: Batak Eguzki eukan izena ta Itzas-Txori besteak. Erriminduta geratu giñan. Euskerea euzkotarren nortasun-agiri bereziena dala beti entzun dogu, ta egia da. Euskeldun izenak ikusitakoan, danok ao batez esan genduan: onek gutarrak dira. Victoria Seychelles'ko uriburua izan arren oso txikia da, ta danok ezagutzen dira alkarren artean. Itaundu ta bereala esan euskuen euren bizilekua. Bermeotarrak ziran. Ikustekoa zan ango poztasun eta bostekoa emon bearra.

Len esan dogu Seychelles Barakaldo baño txikiagoa dala. Ikusi daiguzan onezaz zertzelada batzuk esandakoa zeatzuz.

Seychelles'ek 65.000 biztanle daukoz ta Barakaldo'k 114.094. Bikoitz edo bi bider andiagoa dala, gutxi gorabera, esan leike. Egokiagoa izango litzeke Portugalete (57.794), Santurtzi (52.502) edo Basauri'kin (51.931) parekatzea, onek zeozer txikiagoak izan arren.

Eremuz edo lur-zabaltasunaz, naizta Bizkaia lurralde oso txikia izan, bost seiren bat bider andiagoada Seychelles baño. Edo beste era batera esanda, Seychelles bost edo sei bider sartu leike Bizkai barruan. Zeatzmeatz esatekotan 5,43 bider esango geunke.

Eta ez uste izan gero Seychelles'ek nolanaiko burujabetza daukanik. Erkal bezela antolatuta dago ta oraingo Laterri aske batek bear dauan antolaketa osoa dauko.

An sartzekoan geure argibideak erakutsi bear izan genduzan eta, ondo begiratu ta gero, baimena emoten euskuen muga-txartela edo pasaporte sillatuaz.

Bein bertan egon ezkeru, ango erarketak eta erosten diran gauzak ordaintzeko txindia bearrezkoa zan eta ez edozelakoa, bertakoa baño. Beraz, aldean geunkazan dolarrak truk-egiñez "Rupiak" eskuratu genduzan an lasai ibili al izateko.

Ikuşi al izan doguz bete bear diran baldintzak Seychelles'en sartzeko. Franzi, Italia edo beste edozein laterrian eskatzen dabez anñakoak dira. Laterri Alkartuak edo Errusia'ra joango ba'giña bezela.

Onelako laterri txikitxua ikusiaz, bearbada zoragarrituta geratuko gara, baiña arrituta geratuko giñake txikiagoak dagozala ondiño, gogoratuko ba'giña.

Gogoramen onek auzi garrantzitsu batera garoez: Euzkadi'ko burujabetza dala-ta.

Askatasuna kendu euskuen ezkeroztik, zenbat Ian, oiñaze, espetxeratze, eriotza (guda bat be oraintsu jasan bear izan dogu) geure betiko izan diran eskubideak barriro eskuratzeko.

Eta ez gara Seychelles txikia. Biztanlez 44 bider geiago gara, ta lur zabaltasunez 51 bider andiagoa.

Lurra aipatu dogun ezkeru, bidezkoa izango litzake bizi garan lur au gure gurea dogula esatea. Iñori ez dautsagu kendu. Orain arte amaika buruauste euki dabez jakintsuak, euskaldunak nundik gatozan ezautzeko. Orain ba'dirudi ez garala iñundik etorri. Emen bertan, Auñamendi inguruan, sortuak ei gara.

IDIGORAS'TAR JOSEBA ANDER

## NEURE JAIOTETXEA

Esker onak eskatzen dau-ta, ez gaitzean inoiz be geure jaiot-lur zatiaz aitzu. Bere aurrean orban guztiak ito beitez, itzal oro zurbil Jaiotetxe! Ezkutuz dardarati! Nik aspaldi, neurea ikusiz, ez dot begi-atsegiñik izan. Ogei bat urte dira igaro zu begixtatu bage. Neure gura-soen egoitza, neure kuma ta seaska; ni sortu ninduen gela ta oia, inoren eskutan! Etzaitut ikusi nai izan! Min neban biotzean: ezin ezelan be zu ikusten azartu!

Aurten, baiña, azaroaren 15'an zu, Atxuriarte, ikusten eta laztantzen joatea otu jakun. Ni be joan nendilla Amoroto'ra meza emoten, ilbarri zan gure Jose, nire arrebarentzat eta niretzat loba, gazte jatorraren otoiitz egitera. Eguraldi tristea goizetik. Gasteiz'tik eta, zintzo-zintzo billa etorri jatazan ezker, jagi ta kotxera. Gizonak ez dau bere guraria bakarrik bete bear.

### AMOROTO

Amoroto zan gure jomuga. Markiña'n il jakun ezbearez Jose Fundazuri Onaindia, baiña bere jaioterrian be adiskide ta lagun asko ebazala gogoraturik, an be, urren-go domekaz Ziarrotzan, azaroaren 22'an markiñaldeko lagunak egingo eutosen lez, guk 15' an Amoroto'n egin nai izan geuntson. Beingoan ez aztu adiskideak.

Eta talde polita alkartu giñan Amoroto'n. Aurreko egunez ugari ta domeka goizez euri-antzer jo arren, euzkiak eguerdirako uxatu zituan lainoak guztiz eta aldi agertzen zan nire erria, eta bardin bertako jentea. Naiz-ta nire erriak garagarrillaren 4'an ospatu erriko jaiak, eleizeak il onen 11'an ospatzen, eta oindiño Oleta ta inguruetatik gora San Martin jaiak iragarten ebezan paper aundiak agertzen dira zugatz-enborretatik eta postietatik dingilizka, aizearen jolaski.

Ezin lei ukatu guk otoiizerako gogoa genkarrenik. Orretan gartsu jardunik, ume giñala, orduko abade jaunak, iganderoko dotriña ostean, arduraz azaldu ta erakutsi oi euskuezan San Martin eta beste santuen irudi txiki ta aundiak, egiazko deboziñoz begiratu ta miretsi genduzan. Bardin eleiz-barruko ikusgarri guztiak be, zutoin eder, koru, orma jagi ta abar. Ederra da, izan be, Amoroto'ko eleizea.

Kanpora urtenik, plaza edatua miretsi genduan, eta Udaletxea, gure antxiñako eskola, taberna biak, lengo dotriña lekua orain txoko biurtua, aurreko arte zarra, urtetsu ta ikusgarri, kanposantua, gorago Santa Barbara ermitea, futbol-zelaia, frontoi nasaia, zurezkoa oso, eskola barri dotore-dotorea... Erdi-iparraldera begiak itzuli ezker, beean Olate daukagu jatetxe apaiñakaz, urrin-

txoago Kantauri itxasoa, Lekeitio ta Mendexa laztankide ditula. Bizkaiko errietan ondo sotilla da Amoroto.

### OLETA

Oleta'n bazkaldu dogu, "Ibai-gain" deritxon jate-txean, este-ontziak jaki gogoz aseturik. Ur aundia dakar onaiño erreka ta emendik aurrera ibai dan Lea nasaia, Oiz eta inguruetak muiño, troka ta zuloetatik artutako ixurkiz asea datorrenak. Astitsu ta pozarren emon dau-tsaguz begiak; bidez bestaldetik daukagu baita Maiatz-Pazkoz gure egunetan, eta gaur bardin, dantza-leku bizia zana be. Udazkena izanagaitik, jente ugari dabil Oleta'n bazkal aurretik lez bazkal ostean, eguzki gozatsuan. Gu bardin, zaar ta gazte, mosu-gorri ta berbatsu. Baiña... Atxuriarte'ra joan bear dogu; an jaiok bai gara ni ta nire arreba ta onen seme-alaba bi, eta ango odola daroe, edo eroango dabe, beste iru gazteak be.

Beraz, zoli-zoli, bakotxak bere kotxea arturik, Milloi ta Plazakola'tik zear Markiña'ra doan bidean gara. Eskumara itxi dogu, begiak itxi-edegi baten, Amoroto'rakoa. Or Pabi gure egunetako probalariaren etxea eskuma ta Okabixo ezker. Eta Armiña koba-zuloak, eta bertatik bide bi egiten, guk eskumakoa arturik, Beeko Errota ondoz Ikan'era gara.

### ATXURIARTE

Leen Beeko Errota'tik gora joan oi gintzazan Atxuriarte'ra, baiña piñu-lorreetan dabilzalako, bideak bašaz eta lupetzez lorrinduta daukaguz oso. Ikan Beeko'tik Txopite'ra, barriz, naiz-ta pizkat aldatz-gora, azpia arri-zeez eta galipotez igurtzitako bide ez nasai baiña egoki ta garbia daukagu. Perretxikutan eta eizan dabilzanak ba-dakie bide onen barri, berrituarrak batez be.

Eta emen gara, Txopite'n; kotxe ta jente da berton. Danok agurtu doguz txeratsa, ezagunak eta ez-ezagunak. Guk danak ditugu etxeko. Eta biotzeko. Eta auzoko, emendik zortzi minutura ta goitik beera bait daukagu Atxuriarte. Emengoak ziran nire eskola-lagunak, emengoak jolaskide, emengoak, nire antzera, etxe ta leku onei agur-egiñik, praille, abade ta lekaieme joanak; emen-emendik agiri dira Errena, Enpan, Zarkunbide, Moko baserriak, guk ondo ezagutuak. Agur, danoi!

Gero arte esanaz, gu guztiok jaiotetxerako bidea artu dogu; batzuk andik, beste batzuk emendik, ixil-samar danok, biotz-zirrara gozotan. Ak negar-anpuluz

begiak, onek loturik miiña. Nik onela: "Leen etzan mendi au ain erripa". Barruko gorapilloa nai neban gorde. Besteak be era barean joiazan, zerbait ezkutatu nairik.

Nire loba Floren, azken baten, pizkat aurreratuta, oiuz asi jakun: "Emen, emen dago!" An egoan, egon be, gure baserria, gure jaiotetxea, Atxuriarte, piñu-estalkiz gordeta. Beerantz joian eguzkiak, ler-osto artetik, maitekor emotsazan azken erraiñuzko loxingak. Eta sorginduago egian onek nire sortetxea. Ipar-ekaldira begira datza nire jaiotegi matzala, lau txiki batean, leenago solo, landa ta fruta-igali zugatzez esitua, gaur dana piñu insignis baltzez josia.

Biotzak eztanda! Ez dakigu zer adierazo! Azkenez, danok batera poz-oiuka: "Agur!, agur, oillo-lur!" "Agur, jaiotetxe laztan!" Barriri guk begiak malkoz! Eskerron jario daukat nik biotza. Zu laga ta urrindu nintzan ni; baita etzaitut iñoiz aztu! Eskerrak zuri izan naz nazana! Eskerrik asko, diñotzut, neure baserri eder! Zeurea nozu! Zeurea izango!

Bakotzak bere eskaria ta otoitza egin ondoren, luzaro gagoz begira, aurrekaldean tente, leio, balkoi, asate, teillatu-rtz, erdiko ate, gaur artzain batek giltzez itxia; ezkerreko leiora erkiña eroanaz, nire loba Maritxu'k: "Gela orretan jaio nintzan ni". Nik erantzun: "Baita ni be, ziur asko; nire amak eukana, orixe da". Eta nik, txapela erantzita, "Agur, Mari" bat esan dot.

Au ta bestea ikusi guraz bete eziñik gabiltz. Etxe ondotoxan osiña; leenago lez dago: asiera baten ez egoan ur asko Atxuriarte'n, baiña gure aita ta aitaita (nire arrebaren senarra ta nire aita Migel) argi ta erneak ziran eta urez polito ornidu eben etxaldea, Menditsu azpitik etxerako ta beeko errekatik abererentzat ekarririk.

Bakartadeko "etxea izan arren, ez jakon ezer palta: sagar asko artzen zan eta dolarea eukan; arto ta gari meta ederrak, eta ortarako makiñak eukazan. Urte asko ez dirala, barriztau egin zan gure etxea, barru ta kanpo,

pisu bat geiago jasorik. Bertanbera itxitako etxe ta aterpeak laster jausi oi dira lurrera; Atxuriarte barriz, gordin eta jas aundiko aurkitu genduan. Bego orrela urte luzetan.

Bahia... maite dan izakia ezin laga beingoan. Nire jaiotetxe onen gela ta gaiñerakoak amak eta nik beñola, ni txikitxo nintzala, "Sakon" deritxogun iparraldean sarturiko tui-olez apainduak ei dira. Benetako poza ekarri eustan au jakiteak. Leiotik or agiri dira oraindik sukaldean, maia, arasak, marmolezko garbiasko... Baita naigabe-zitada be: etxostean, guztiok maite genduan ereiñotza trontzaz ebagi dauskue. Beso doillorak! Azpi-  
ondu giarra agiri da bakar-bakarrik.

### ARRASTI BIKAIÑA

Ikustaldi au gomutagarri izan dakigun, urtez urte izan be, andik eta emendik Kodak bizkorrez argazkiak atera dautsaguz Atxuriarte'ri. Ez, ez daigula egundo aztu geure jaiotetxea! Bebil maitetsu geure biotzetan eta ezpanetan. Eta, gaurkoz beintzat toki lilluragarriaz ondo asetu gareanean, ostera be Txopite'runtz artu dogu.

Sakon gaiñetik gorantz egiterakoan, onan diñogu: "Or gure sagastia, ortik igon oi giñan eskolara ta eleizara. Gure etxeari Atxuriarte deritxo, eta guk: "Gu baiño argiago ziran antxiñakoak; ederto be ederto ipiñita dauko daroan izena; aitz zuri mokorra emetik eta aitz-zuri mokorra andik eta bien artean gure egoitza".

Txopete'ra orduko ia-ia illundu jaku. Lagun pilloa etxe aurrean, bertakoak eta ara etorriak, gu legez. Jau-  
regitarrai agur gozoa egiñik, gu etxera, batzuk Markiñara, beste batzuk Gasteiz'era eta ni Larra'ra. Eskerrik asko, Jauna!

AITA

## URTE BARRIA - ARPIDETZA -SARI BARRIA

**1988 URTERAKO ARPIDETZA-SARIA**

**1.000 PEZETA IZANGO DA.**

**GURE IRAKURLEAK GOGO ONEZ ARTUKO**

**DABELA USTE DOGU GORAKADA AU ETA**

**BIOTZEZ ESKERTZEN DAUTSEGU**

**EUSKERAZALEAK**

## OROITZAK (I)

Sarritan gure inguruko IRAGARKIETAN ejenplu badaezpadakoak edo zatarrak ikusi edo entzun, edo irakurten doguz eta geratzen gara arrimenduta, arrituta, baiña jaramonik egin barik jarraitzen dogu gure bizi-modua.

Gure Aldizkari ZER'en nai neuke gure ADIBIDE-RAKO gauza egitate edo itxurazko batzuk ekarri, guretzat IRAKATSI gai izan daitezcan.

Lerro onek ASMO orretara doaz.

Joan da agorrillaren 13 an il zan MARTIN ETXABE esaten eutsien gizona. Gasteiz'en il zan eta urrengo arratsaldean ekarri eben, zazpiretarako bere Auzora, Gellau'ra, eleizkizunerako eta illobitzerako Aretxabaletan.

Bera Gellau'ko basetxe baten jaio zan, ETXABE edo "PATROITXUENA" esaten eutsien etxean; beragaz aspaldiko gizaldietako ABIZENA bukatu da, etxe orretan.

Nire gomuta guztian, eta lenago be bai; etxe ta abizen ori, oso ospetsu eta entzuntedun ziran, inguruan beintzat, ontasun ugariak ebezelako eta, jente zin-zin, on egitekoa, biotzekoak ziralako.

Urrengo egunean, 14'an, izan zan eleizkizuna eta illobiratzea, auzoko eta erriko jente asko batu zan gauza bietan senen inguruan.

Elizea bete-beterik egon zan, soiñu jotzaillea eta abeslaria Karmeltar bat zala baiña, beragaz batera guztiak abestuten eben, orain oitura dagon bezela. Oso gauza pozgarria.

Goizean, uste barik, artu neban barri naigabe ori, eta arratsaldeko bostetan, an agertu nintzan, gure Martin'eri agurrean laguntzeko.

Agurtu eta nere loba RESU'ri ATSEKABEA emon ondoren, beti bezela asi giñan itaun eta erantzun batzuk egiten bata besteari. Andra orrek, gauza arrigarria, gure emakumeak ezertxo agertu barik bere naigabea, ez negarrik, ez malkorik bere SENEAN egonda eta ezelako zirkiñik egin barik edo agertu barik.

Geroago eldu ziran senide eta auzoko ugari, etxea bete artean, ara or, gure RESU agertzen da, nigaz bezela guztiekin, danari ondo esan, erantzun salaparta barik. Danari erantzuten eutson lasai.

Ni oarpenean nengoan, ikusi, entzun dana, zelako jokabidea eukan andra gazte orrek.

Olako goraberatan jentea urduri, ta goibel agertzen da, ez zan ikusten iñon olakorik.

Zelan eta da ori, nere barruan esaten neban?

Zer da au, fedea, eroapen aundia, Jainkoaren indarra?

Olako gertaldetan ez da ikusten negarra, malkoak

eta salaparta batzuk baiña. Emen ezertxo be ez. Oso arrituta gelditzeko moduan.

Ordua urreratu zanean, Resu'ren SEIÑU bategaz, danok abiatu giñan eleizarantz, eleizkizun ederra egiten eta Martin agurtzeko.

### ETXABE'KO EDO PATROITXUENeko ABIZENA BUKATU

Gure basetxeko, ETXABE abizena, Martin'egaz bukatu zan.

Orain beste gizakume batzuk egin dira jabe.

RESU bertako alabea eta JOSE LUIS LIZARRALDE, PATROITXUENeko dira jaubeak.

Resu, ondo EZIKO alabea, Bilbo'ko ikastetxe onetan ezia.

Jose Luis Oñati'n jaio eta eskondu arte, lurgintzako Ianik ikusi gabekoa eta egin bakoa. Aldakizun au samur esaten da baiña, nire uztez, ez da samurra, beste oitura eta zer-egin ezberdinak diralako. Orain nekezago, naita erreztasun aundiagoak egon basetxeetan, baiña danok gura dogulako BIZIMODU ERREZA, lanigabekoa eroan.

Eta lurgintzan ez dago lana baiña, egun guztian, goizetik gabea nai ba'dozu zure eginkisuna zuzen, artez eta ONDO EROAN.

Lana ugari egin ezkerro, orduan bai, zeozer eta olako etxean bai aterako dozu onura ugari.

Bertan gaubean, elizkizun ostean, etxeratu giñanean, an lenengo zer-egiña, LANA izan zan, kortan egozan aberreak, zaindu, konpondu, noberaren ardura kolkoan itxita arek auznarrean itxi arte, areri zirrika ibilli ziran.

Ordua ondo beteta itxi eta gero eurek andra ta gizon joan ziran afaltzera, baiña ixil-ixilik, lasai eta euren barruko lasaitasunaz.

Gure andra-gizonak dagonera jarri dira eta jo ta kee egiten dabe euren izena aurrera eroan.

### ABUSTUAN 15'AN, ANDRA MIRENEN EGUNA. AUZOKO JAIK

Egun orretan nai ta jaiak izan, gure jenteak ZAZPIRETAN JAGI ta Ian egin eban, abereak ondo bete arte, abereen lanak ez dabe parkatzen nai jaia, nai asteguna izan.

Ni be jagi nintzan zortziretan eta agurtu ondoren RESU'ri nire naia agertu neutson: ibitaldi bat egin gura nebala, aintxiñeko lekuak ikusten.

Ezer esan barik: NAI DOZUZ "ZAPATILLA" BATZUK erosoago ibilteko? Baietz esan neutson. Gero: Gaur MEZEA berandu izango da, ta gura dozu zer bait, jateko, amaikak inguruan?

EZETZ esan neutson, etxeurrean makatzak egoazan bitartean.

Beste barik urten neban etxetik arazorik ez emoteko goiz guztian.

Andrea, gaztea izan arren, toki guztian egoan nigaz, abereakaz gizona'gaz eta abar.

Bere ARDUREAK etxe osoa betetan eban, jaingo txiki bat bezela. Niretzat esan neban: AU DOK ANDREA, olako emakume bategaz ezin KIÑA JO basetxe batek.

Auzoko jaiak ziran lez, MEZEA berandutxo izan zan: Ordu batetan. Jente guztia eldu zan ordurako, beste ARGITASUN bat oartu neban ORDUA AINDU, oitura ederra. Aurreko egunean lez soñujotzailea abeslaria, zuzendaria, dana bat izan zan, baiña auzotar guztiak parte artuta abes guztietan. Pozgarria olako nortasun ederra ikustea.

Itzaldia be soñujotzailleak egin eban, labur laburrean, gure ANDRA Mirenen goraldia zelan Jaingoak eroan eban bere ondora arima ta gorputzez, garbigarbia izan zalako, eta egunen baten danok beragaz egon gaitez an opariaz.

Meza ostean auzotar guztiak lasai egon giñan alkarizketan eta danak azpertz ziranean, baktotxa bere etxera abiatu giñan.

Ordubiterdirak ziran etxera eldu giñanean. Gure andragizonak ez eben presarik euki bazkaltzeko, gero arduragabe egoteko; lenengo lana, kortan egozan abereak, gaubean bezela ondo, itxi arte ibilli ziran. Abere aundi ta txikiak jana emon, apaindu "ogea" eta auzurrean itxi arte guztiak an egon ziran.

Kaletarra Jose Luis onela ikusita, esan neutson: ZELAN OITU zara basetxeke lanera?

Beraren erantzuna: Osaba, EGIN BARIK EZ DAGO IÑUNBE EZER / Gizon arek nai eta SARI ederra ekarri Oñatiko lantegitik ardurea ta denborea eukiten dau, basetxean lana egiteko. Zenbat obeto egongo litzake, uste dot, txikito baten aurrean, barriketan, kaleko edo edantegiko txokoren baten.

Baiña ez, Euskalgizon zintxoak on egiten dabe:

1.º Irasi alperrik ez egin; 2.º Etxea ONURATU; 3.º Osasuna zaindu eta sendotu; 4.º Emaztea eta etxekeak ALAI euki.

Gero, presa barik, baskai bikaiña jan genduan. Egun artan ez zan "falta" ezertxo ere eta danok zoriontsu.

Gizon xintxo bat ez ekartearren ona, beste bat be onen antzerakoa bardin-bardiña, daukagu bertan ururrean: JUANITO AKIZU, Gellagarai'n.

Onak be FAGORRE'n lana egunez egiten dau, eta SARI ederra etxeratu, eta ostantzeko orduak Gellagarai'ko basetxean lana ugari eta ondo egin. Oso ederto, guztora, gauzak bere tokian agertzeko, baserria goi-

goian egon daiten, lana eginda aintxineko arbasoak egiten eben bezela. Alan etxeke zarrak aurkitzen dira, ondo, lasai eta pozik, euren izerdia ez dala izan alperrekoa ikustean Juanito Akizu Gellagarai'ko alaba nagusien dan Milagros'egaz eskondu zan orain dala ogei-urte.

## ETXABE ORRREN IZENA "PATROITXUENA"

Nire txiki denboran beti entzuten zan, Etxabe'ko etxea esateko, "PATROITXUENA". Ez yakon izentuten beste modura.

Bizitza biko etxea zan emengo guda aurretik.

Alde baten etxeke nagusiak bizi ziran eta beste aldean alogerekoak. Bakean bizi ziran batak besteari lagunduta.

Gure gudan, etxe on SEI illebetan, emengo talde bien artean gelditu zan, Bertan lo eta egunek be bai egiten ebezan, bai talde batek eta bai besteak.

Azkenean SUA emon ta ezeztatuta, austuta itxi eben, ezkerak emoteko. Baiña, zelan dirudunak ziran, bertantxe erailli eben bizitza batekoa; leen baiño politagoa, egokiagoa ta ederragoa.

Alde baten zabaletara, egoi aldera, BIZITOKIA solairu bian.

Bean, barne bide luzea ta zabala eskaratzera sartzeko, aretojentokirako gero mailla batzuk bigarren solairurako eta azkenean garbitoki ederra.

Bigarren etxoñean SEI GELA, bata baiño bestea edarragoak, zabalak, argituak, eguzki ederra sartzen zala.

Iparralderantz, basetxeke tresnak, korta ederra ta egokia, eroso ama lau edo amabots abere ondo eukiteko tokia.

Korta azpian ZIMAURRA eukiteko tokia bikaiña eta aldamenean garnu-gordailua, udabarrian zelaira eta soloetara eroateko ONURA bezela.

Ain polita eta ondo jabonda aurkitu eban, orain dala 26 urte Gipuzko'ko ALDUN-ETXEAK, ango basetxe guztietako lenengo SARIA emon eutsoen Gellauko PATROITXUENARI.

Orduan leen baño ardura aundia eukiten eben, polita eta kutxun egoteko, gero lan geiago egiten eben bikaiño egoteko.

Etxe aurrean BARNEBIDE zabala ta arlanduaz egin da atarira arte. Beste onenbeste zabala makatzondo batzuk oso egoki ipinita lau adar gorantza dabezela lora artean, oso ikuspegi politaz.

Mailla batzuk berago BARATZA, baiña, zelako baratza zelan jabonda, mota guztietako barazkiakin itxura ederrean.

## BESTE ANDRA BATZUK

Goian esan dodan lez, arrituta nengoan gure RESU-ren ardura eta ajolagaz etxe inguruko gauza guztiekien.

Baiña ez da BAKANA bera, bera bezelakoak geure



eredu izan daitezkan, onenak izan zirako, ona ekarri bear dodaz.

Baiña, esan bear dot, ez dirala oneik bakarrik, oneik lakoak ERRESKADA aundia egongo dirala, edo leitezela, ez larregi luzetze arren, neure bizitzan ondo ezagutu dodazanak bakarrik aitakuko dodaz.

ANASTASIA ARRIOLABENGOA, Aramaio'n jaiota Gellau'ko Gellagarai'ra eskondua.

Zazpi seme-alaba azi eta, etxe-ingurua argitarabi eukiten eban. Bera, arduratzen zan, gizonari txanponik sekula eskatu gabe gizona ta bere semealabak jantziteko, janari ugaria ta bikaiña etxean eukiteko, ala-ta-be jaietan, maiazken ederrakin berak eginda.

Semeak beste batzuk bezela agertzen ziran eta askotan obeto.

Zelan ori? Etxeko baratzean eukiten ebazan barazki mota guztiak, arek saldu eta egunero astokada bat esne kalera eroan, ta igale denboran be salduten ebezan sagar, makatz, mailluki, gastaña, keretxa ta abar. Mazatik kanpora emoten eutsen BEZEROEI, "ESKUPEKO BEZELA" eskukara bat geiago, eta beseroak oso pozik joaten ziran etxera.

Esaten dabe, edo ESAERA au entzun dot kalean leenago:

*Aramio'n, ANDRA bat egoala, eta BERA Gellau'ra etorri zala.*

Au ERASKIN barik, beorrek diño dana.

Bere egintzak ori berori iragartzen dauskue.

Auzoan bat jaioten zanean, berari deitzen eutsoen geisolagun bezela ta ara joaten zan "TXAKUR" bat eskuratu barik.

Askotan etxe beartsua zanean, gaiñetik, utsean aurkitzen ebalako etxea, berak ipiñi bear zeozer.

Txiroak etorten ziranean, pozik aundienagaz emoten eutsen jana ta estalkia Iegorrean ta beroa neguan.

Ondiño ez da denbora asko, lekaietxeko gizon bat ibiltzen zan "eskean", ta berak esaten eustan: Etxe aretan bai arreta bikaiña eukiten ebalako emakumerik bakanak izaten zirala.

Andre onen buruz eten barik jarraitu neike, ez izatearren astuna emen lagatzen dot.

Onen antzerakoa, *asitik dator landarea*, Etxabe'ko Martin'en emaztea JUANITA OLABE, Onek artu eban Patroixueneko SARIA Gipuzkoa'ko ALDUN Etxekoak emon eutsoenean. Bere ARDURA guztia izaten zan basetxea garbi ta argi eukitea, iñok baiño obeto.

Baiña orretarako, su ta gar, jota kee, egin bear zan lana.

Nai ta ainbeste Ian egin, iñoz ez eban arpegi goibela eukiten, beti agertzen zan irribarreka, ezertxo egin ez dauen moduan.

Oneik baiño leentxuago bizi zana, FAUSTINA GARAI, kukuzuloko etxokandrea, ainbat urtean.

Bere gizona saleroslea izanik, berak eukiten eban etxe-inguruko ardura guztia. Zortzi semealaba eukiarren, au be konpontzen zan dirurik senarrari eskatu gabe. Zelan? Atzarmarkada asko eginda ortuan, soloan. Premiña egonean lanerako, deitu alogerokoei ta aurrea, arin etorten ziran laguntzailleak.

Onen alabea, MODESTA ETXEBERRIA, Eskoriaza'ko Iturralde basetxera eskondua. Guda ostean, ALDI ain ona euki ez arren, bere trebetasunagaitik etxea bai goigoian ipiñi.

Sarrera aundia egoan etxe orretan, danari arpegia emon, guztiei zeozer eskiñi eta emon barik ez eban andik urtetan, naiz izan goiza, eguerdia edo iluntzea.

Beti: Zer nai dozu artu? itz on agoan eukan.

FELISA ARRIOLABENGOA: Zubetzko etxekandrea, amabi seme-alaba euki ebazana eta oindiño etxea, eta ondorengoak eukiten ebazan eguskien argia bezela. Beti guztiei prest laguntzeko, ta emoteko beretzako bear ebana sarritan.

Orain 9 semealaba bizi dira. Sei eskonduak ta iru eskongabe bizi dira alkarren ondoan PAKEAN ta MAITASUNEAN.

Askenez: ANTONIA ARIZAGA.

Plasentzia'ko Arizaga basetxean jaiota bertan il zan.

Ariñago esan dotena, lana ugari egin, zazpi semealaba azi ta etxe ingurua ondo euki.

Aurrekoa bezela, iñoz senarrari txanpon bat eskatu barik. Zelan? Ba betikoa soloan, ortuan, eta zugatzetan artzen ziranakaz, ekarri mordozka dirua etxera.

Bera antolatzen zan etxeko gorabera guztiekin.

Kalera joaten zanean, kaletarrak esaten eben:

Or dator Arizaga'ko SEÑOREA. Naita Ian ugari izan beti, bere kopetean goibelik ez egoan. Beti arpegia irribarreka.

Eguna amaieran, ondiño ALDI ONA eukiten eban, nigaz, guztiak ogeratuta, noizipeñean kartetan gogor egiteko, lanean bezela!

## ONDORIOKOA: EGINKIZUNIK BIKAIÑENA

Andra onein etxe guztietan, zelaiko lanak amaitu ondoren, ta jente geiena etxeratzen zanean, naita NEKATUTA egon, Jainkoa ta Ama Birgiñarentzako, minitu batzuk eukiten ebezan, eguneko lanak ONETSITEKO, asiten zan ERROSARIO SANTUA, zaarrenak asi eta guztiek erantzun.

Zelako OITURA edo EJENPLU ona emon euskuen guk jarraitzeko.

Gure ARBASOAK olakotxeak izan ziran, oinarri ona itzi euskuen ta orregaitik euren semealabak ondo bizi dira, oneik be, gure aurrekoen urratzak jarraitzen dabezelako lanean.

ETXEBERRI'TAR ISIDOR

## BERTSOETAN

### EUSKERA

Euskal gudari idazlaria,  
gogoz, diarduk lanean,  
urteak joan eta etorri  
amets onenaz bidean;  
zarata barik, baiña adorez  
izkuntzaren omenean,  
maitasun orrek jaukak abia  
ire buru-biotzetan.

Lanaren lanez agertuten dok  
buruko almen guztia,  
ekin ta ekin sendotuten dok  
biotzaren adoria;  
ondoren jatok gizontasuna  
aberastuz euskera,

gure ondoren biziko danak  
izan daian gidaria.

Solo eder bat landu bagerik,  
benetan, penagarria,  
ainbeste artoz, ainbeste gariz  
poztu leitela bizia;  
ire buruak eta biotzak  
bai ortarako grazia,  
euskal arloan jardunalean  
txukundurik euskera.

Gure arbaso maitegarriak  
zer ete jauken eurengan,  
izkuntza jori ta jakintsua

sortuteko mendietan;  
jakituria eta zentzuna  
doai ederrak, benetan,  
gizontasunez josi jituen  
lur, Ian ta itzak izkuntzan.

Odol baketsu ta egizale  
dok euskaldun jatorria,  
irea cure, gurea geure  
dok euskaldun guraria;  
era orretan sortu zuan, emen,  
enda bikain berezia,  
gora euzkotar erri jatorra  
eta ire izkuntzia.

PAULIN

### ETXANIZ'TAR NEMESIO

Bizitz ontako gauz ederren bi,  
egiz, maitatu zenduzan,  
Jesukristoren abadetzea  
euskaltasunaz batean;  
larros eder bi ziran zuretzat  
buru ta biotz gaiñean,  
gurpil bi orren gurdi gaiñetik,  
gogoz, burrukatu ziñan.

Ikasle zintzo, langille trebe  
agertuz ikasietan,  
gizon prestutzat jarri zinduzen  
pilosopiko gaietan;  
gero ondoren, eleiz jakintzak  
egin zenduzan benetan,

jakiturizko itz "doktoea"  
arturik eskubidetan.

Euskal mundua begira zeunkan  
itxaroten semeari,  
euzko apaiza, gogoz, egoan  
on egin nairik amari;  
zentzun guztiak, oso osoan,  
emon zentzazan lanari,  
kristau arazo errikoietan  
opalduz Aberriari.

Frankoren gudak, berez, ekarren  
gorroto jazarpenduna,  
odol erioz ta erioztaz

gorrituz lur euskalduna;  
gizon onenak igeska dabiltz,  
au zoria geunkaguna,  
bizi-bearrez kanpora doa  
Etxaniztar apaiz jauna.

Geroztik beti, ekin ta jarrai  
idazkartzaren bidean,  
abestiz eta olerkiekan  
Euzkadiren omenean;  
bizia, garbi, urratu zendun  
kultur sail ederrenean,  
euskal etsaiak dardaratuaz  
egiaren izenean.

PAULIN

### SINISTU-EZIÑEKOAK, BAIÑA EGIA

DEIA egunkarian, otsaillaren 9'an, LATIEGI-  
'tar Bixente'ren idazki bat agertu da eta auxe  
diño: Eusko Lege-Batzar edo Parlamentuak ZER'en  
arpideduna izatea itzi egin dauala, erakunde orren  
Iiburutegian zuzendari danak "ZER'egaitik ardu-  
Oraik ez daukala" diñoala. Gaiñera barri ori emote-  
ko dan eskutitza erderaz idazten dau.

Bizkai'ko euskerea indartzeko orain-arteon emon

diran 800 pezetak emotea larregi dala uste dau  
antza.

Lege-Batzarreko Aldunen eritxia ete da ori?  
"No interesa". "Ez dausku ardura."

Sinistu-eziñekoa da ori, baiña egia. Aldunai  
ardura ez ba'dautse be, guk lanean jarraitu bearko  
dogu, Bizkai'ko gure euskerea bizirik aterateko.

ZER'eko BANAKETAKOAK

## JUANTXO-TXIKI BEGI-AUNDI

**Juantxo-txiki oso txikia da,** bere burua aundi iruditzen bajako be. Gauza guztiak oso beetik ikusten ditu: Zomorroen ikuspegitik. Orregaitik dana ikusten da aundikiro. Gauza guztiak, bere burua be bai, oso aundiak ikusten ditu eta oso aundiak iruditzen jakoz.

Danak aundi.

Dana zer da?

Ba, orixe, dana: dan guztia. Bai izaki, bai gizaki, bai abere, bai sentimentu, bai ekintza... Bere barruko eta bere kanpoaldeko gauza guztiak.

Guztiak dira aundi, bera txikia dalako.

\* \* \*

**Baita begi aundiak** ditualako be. Ikusten ditunak amentuzko kristalekin begiratzen ditu, bere begi aundiekin. Azpitik begiratzea da bat eta begi aundiekin begiratzea beste bat.

Eta, begi aundiak ditu.

Orregaitik gure kiñurik txikiena be, aundia eta bildurgarria iruditzen jako. Bera txikiago eta besteak aundiago eta bildurgarriago.

\* \* \*

**Sentimena eta gogoramen-irudimena** aundiagoak begiak baiño, oraindik. Ortik kontuak atera zer begirune erabilli bear dogun berarekin.

Kontuz.

Umetxoaren barrena ari-matasa bigun, minberatia dozu. Bigun eta legun jokatu bear Juantxo-txikirekin. Indarrez asten bazera, urratuko dozuz ari mee, argal, sentikor oneik.

Botella bat ardo puskatu dauela ta, negarrari emongo dautso, oker aundiren bat egin baleu bez. Margodun iruditxo emoten dautsozu eta an doa pozik urregorritzko pitxi bat emon ba zeuntzon lez. Txakur zuria galdu jakolako, naigabearen urratzak emango dauz urte askotan bere biotzean.

Dana da aundi beretzat.

Dana zoragarri.

Dana izugarri.

Juantxo-txiki begi-aundi eta sentimen-aundi.

\* \* \*

**Bera txikiago** eta kontua aundiago berarekin. Ala egin bearoko dozu.

Ez asarratu bere aurrean eta berarekin gutxiago oraindik. Ez garrasirik egin, basajaunaren antza emango dautsazu. Urratuko dautsazu Iarrua.

Ez jo!

On baiño geiago, kalte egingo dautsozu.

Une bateau pentsako dozu zaplastako batekin arazoa konponduta daukazula; baiña, zaplastakoekin ez da iñor obeagotzen.

Gozo erabilli umetxoa eta gozoki erakutsi on-bideak. Jainkoarekiko ar-emanak samurki eta pozgarri azaldu...

\* \* \*

**Bildurrik ez** sartu umeari biotzean. Kalte egiten dautsoe Juantxo-txikiri ipuiñ eta kondaira bildurgarriak.

Kalte izugarria.

Zenbat bildurri munduan kontu orreik dirala eta ez dirala. Bildurrak egindako zauri orreik ez jakoz sekulan ondo sendatuko Juantxo-txikiri. Zuentzako gauza txikiak izan arren, ez ahaztu umearentzat aundiak dirala eta izugarriak.

Zuen seme-alaben onaren billa ibilli zaiteze.

Erne!

Colón de Larreátegui, 14 - 2. dcha. BILBAO-1


# Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,  
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,  
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,  
batez be, emoneko berba lez daroan  
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.  
Itxasoaren oldarra gelditzen,  
gizonaren neurribako  
alegiña:

**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS  
**VIZCAINA**

**Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.**